



GENERO ERAGINAREN AURRE EBALUAZIOA EGIAZTATZEKO ARAUZKO TXOSTENA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO 2021erako AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEN DITUEN FORU ARAUAREN AURREPROIEKTUARENA

Ogasun eta Finantza Departamentuaren eskariz egiten da txosten hau, foru arau hauek xedatutakoa betetzeko asmoz: alde batetik, *6/2005 Foru Araua, uztailaren 12koa*, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa –70. artikulua–; eta bestetik, *2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa*, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa –27. artikulua–.

Txostenaren helburua da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak egiaztatzea zuzen aplikatu den ala ez arau eta jarraibide hauetan xedatutakoa: *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2/2015 Foru Arauaren 27. b) artikulua*, eta *Gipuzkoako Foru Aldundiko organoen izaera orokorreko xedapenen genero eragina aldeztetik ebaluatzeko txostenak egiteko jarraibideak, 2011ko ekainaren 21eko Diputatuen Kontseiluaren Erabakiz onartutakoak*. Orobat, helburua da zentzu horretan hobetzeko proposamenak egitea.

2021eko urtarrilaren 18an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoari eskatu dio goian aipatutako proiektuari buruzko genero eraginaren aurre ebaluazioa egiaztatzeko txostena. Aurreproiektu horren xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2021erako aurrekontu orokorrak onartzea.

Foru arau batenez, *2/2015 Foru Arauaren 27.1 artikulua* ezarritakoari jarraikiz, genero eraginaren aurre ebaluazioa behar du. Xede horrekin, proiektua sustatu edo eragin duen organoak dagokion genero eraginaren aurre ebaluazioko txostena egin du, aipatutako arauko *27.2 artikuluan* aurreikusitakoarekin bat etorritik, hain zuzen ere.

Ondorioz, Berdintasun Zerbitzuak dagokion genero eraginaren aurre ebaluazioa egiaztatzeko txostena ematen du, *15/2016 Foru Dekretuak, uztailaren 19koak, Diputatu Nagusiaren Alorraren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak*, *12. artikuluan* ezarritakoaren arabera.



EGIAZTAPENA

Genero eraginari buruz aurkeztutako aurre ebaluazioko txostenak **zuzen identifikatzen du** esku artean daukagun foru arauaren aurreproiektuaren **genero pertinentzia**, emakumeengan eta gizonengan duelako eragina, pertsona fisikoak izanik azken hartzaileak, eta gainera, eragina duelako emakumeen eta gizonen baliabideetarako irispidean edo baliabideen kontrolean.

Genero pertinentzia identifikatu ondoren, Gipuzkoako gizonen eta emakumeen **abiapuntuko egoerari buruzko azterketa bat** egin du, eta, horretarako, 2021eko aurrekontuen genero-eraginari buruzko txosten exekutibo bat erantsi du.

Txosten horretan, Gipuzkoako gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun egoerari buruzko erreferentziazko adierazle batzuk aztertu dira, eta lortutako datuak Europar Batasuneko datuekin alderatu dira. Emandako datuek erakusten dute emakumeek eta gizonek aukera desberdinak dituztela hainbat baliabide eskuratzeko, hala nola prestakuntza, enplegua, errenta, denbora eta erabakiak hartzeko espazioak. Gainera, txostenean adierazten denez, *«azken urteotako egoera ekonomiko larriaren ondorioz, gizarte sektore guztiek jaso dute kaltea langabeziaren gorakadaren ondorioz, ongizate estatuko zerbitzu batzuen murrizketaren ondorioz... Gainera, krisiak gehiago eragin die errenta apalenak dituztenei eta babesgabetasun egoeran daudenei, eta pobrezia tasa zehazteko erabilitako adierazlearen bitartez, jakin badakigu gizonak eta emakumeak bereizten dituen arrakala oso sakona dela»*.

Azterketa horren ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzura dauden langileei buruzko datuak aurkezten ditu txostenak, sexuaren arabera bereizita, eta egiaztatzen da genero arrakalak daudela jarduera arloetan, erantzukizuneko lanpostuetan, lan-baldintzetan, eta lana nahiz familia bateragarri egiteko neurrien erabileran.

Era berean, aztertutako 34 aurrekontu programei buruzko datu kuantitatiboak ematen ditu txostenak. Horietatik, 23 programak genero garrantzi handia dute, eta beste 11k, berriz, garrantzi ertaina, Foru Aldundiak berak egindako aurrekontu programen sailkapenaren arabera.

34 programa horiek aurrekontu osoaren % 62,3 dira, eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Foru Plana garatzeko aurreikusitako zenbatekoa jasotzen da txostenean, EBA (Emitzei Bideratutako Aurrekontuak) aurrekontu plangintzako tresnan jasotako informazioaren arabera.



Jarraian, aztertutako programak aurkezten ditu txostenak, eraginpean hartutako kolektiboei dagokienez: adinekoak, premia bereziak dituzten pertsonak, haurrak eta nerabeak, helduak, eta biztanleria osoa. Azken kolektibo horri dagokionez, nabarmentzen dira gastu fiskalei buruz emandako datuak, horiek emakumeengan eta gizonengan duten eraginari dagokionez.

Azkenik, aztertutako programak sailkatzen ditu txostenak, lotzen diren gaitasunen arabera: diru sarrerak, zainketak, etxeko ingurune egokia eta segurua, parte hartzea, aisia eta kirola, hezkuntza eta ezagutza, mugikortasuna, ordaindutako lana, osasuna eta indarkeriarik eza. Gaitasun bakoitzaren pisu espezifikoak ematen da, lotura horren arabera, eta bilakaera 2020ko aurrekontuarekin alderatzen da.

Horrekin guztiarekin, txosten honen xede den proiektuaren genero pertinentzia behar bezala identifikatzen dela egiaztatzen da, eta aztertutako aurrekontu programen jardun eremuetan emakumeen eta gizonen egoerari buruzko datuak ematen dira, sexuaren arabera bereizita.

Hala ere, eta lortutako datuetatik abiatuta, ez da identifikatutako desberdintasunen genero azterketarik egiten, eta ez da neurri zuzentzailerik sartzen desberdintasun horiek konpentsatzeko, hala badagokio, eta, horrela, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna aktiboki sustatzeko.

Ondorioz, txostenak ere ez du egiten foru arauaren aurreproiektuaren genero inpaktuaren aurretiazko balioespenik 2021eko aurrekontuari dagokionez, nahiz eta, hain zuzen ere, hori den haren xedea.

ONDORIOA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Azaldutako guztiaren arabera, eta 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 27.2.b) artikuluan dioena betez, Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Foru Arauaren aurreproiektua sustatu duen departamentuak **partzialki ezarri du** 2/2015 Foru Arauak 27. artikuluan xedatutako prozedura.

Hori hala da, zeren eta, alde batetik, aurreproiektuaren genero pertinentzia identifikatzen baita, eta emakumeek eta gizonek jardun eremu horretan duten egoeraren diagnostiko bat egiten baita, baina, bestetik, ez baita egiten genero eraginaren aurre ebaluazio bat, eta ez baita txertatzen berdintasunaren aldeko neurri zuzentzailerik, hala badagokio.



Izan ere, *Gipuzkoako Foru Aldundiaren xedapen orokorren generoaren arabera eraginari buruzko aurretiazko ebaluazio txostenak egiteko jarraibideetan ezarritakoaren arabera* (2011ko ekainaren 21eko Foru Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez onartu ziren), aztergai den aurreproiektuaren generoaren arabera eraginari buruzko aurretiazko balorazioa egiteko eta haren eragin positiboa bermatzeko, urrats hauek egin behar dira:

- ✓ Aztertutako programa bakoitzeko datuak sexuaren arabera bereizita biltzea.
- ✓ Dauden genero arrakalak identifikatzea, bildutako datuetatik eta berdintasunaren ikuspegitik egindako azterketa kualitatibotik abiatuta.
- ✓ Programa bakoitzaren eta proiektu osoaren genero eraginaren alde aurreko balorazioa, aztertutako abiapuntuko egoeraren arabera.
- ✓ Programa bakoitzaren esparruan, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko neurri zehatzak ezartzea, aurreikusitako genero eragin negatiboak zuzentzeko, hala badagokio.

Aزتutako aurrekontu programen kasuan, txostenak programa bakoitzari dagozkion datuak erakusten ditu, sexuaren arabera bereizita. Ildo horretan, nahiz eta bai txostenean bai foru arauaren aurreproiektuaren zioen azalpenean zehazten den COVID-19ak sortutako krisi ekonomiko eta sozialak gehien eragindako kolektibo eta sektoreekiko foru konpromisoa, ez da sexuaren arabera bereizitako daturik ematen. Gipuzkoako aurrekontu orokorrek desberdintasun ekonomiko eta sozialei aurre egin nahi dietenez, eta pandemiak, hain zuzen ere, areagotu egin ditueneg, egokia litzateke emakumeen eta gizonen egoerari buruzko 2020ko datu eguneratuak ematea; izan ere, horrek esku hartu beharreko errealitatea hobeto ezagutzea ahalbidetuko luke, eta, horrekin batera, aurrekontu programa bakoitzaren esparruan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurri zehatzak planifikatzea.

Izan ere, txostenean datu esanguratsu hau jasotzen da: 2021erako % 7,40ko igoera planteatzen da Foru Aldundiaren kudeaketa aurrekontuan –beraz, igoera garrantzitsu bat–, COVID-19ak sortutako krisiari aurre egiteko.

Gainera, sarreran, gizarte politikak eta ekonomia sustatzeko politikak garrantzi berezia dute pandemiaren ondorio sozial eta ekonomikoei aurre egiteko. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak bi fronte horietan ahalegin handiagoa egitearen alde egin du.



Hala ere, ondoren, abiapuntuko egoeraren analisiaren esparruan, ez du daturik ematen pandemiaren krisiak emakumeengan eta gizonengan izan duen eragin desberdinari buruz, honako faktore hauen ondorioz:

- Funtsezko sektoreak feminizatzea (elikadura, zaintza, osasuna...).
- Lan baldintza okerragoak eta emakumeen ezegonkortasun handiagoa enpleguan.
- Zaintza karga handiagoa etxean, eta horrek zuzenean eragiten die emakumeei, oraindik ere emakumeak baitira, gehiengoz, pertsonen eta etxearen zaintzaren ardura beren gain hartzen dutenak.
- Krisi ekonomikoaren eragin sakona sektore feminizatuetan, hala nola ostalaritzan, jatetxeetan, merkataritzan...
- Indarkeria matxistak eragin handiagoa izan du konfinamendu moldeengatik eta mugikortasuna murrizteagatik, erasotzaileen kontrola handitzea ekarri baitu.

Hori dela eta, genero eraginaren aurretiazko ebaluazioari begira, interesgarria izango litzateke 2021erako aurreikusten diren genero desberdintasunei aurre egiteko neurri espezifikoek genero eraginaren aurretiazko ebaluazioa ezagutzea eta egitea, sustapen ekonomikoaren eta gizarte politikaren arloetan behintzat; izan ere, genero eraginaren aurretiazko ebaluazio txostenak berak adierazten duen bezala, estrategikoak dira pandemiaren ondorioei erantzuteko.

Ilido horretan, kontuan izan behar da programak generoari dagokionez duten garrantziaren arabera kategorizatzeak eta programa horietako asko garrantzi handikoak izateak ez duela esan nahi programa horiek beren jardun eremuan gertatzen diren genero desberdintasunak konpentsatzen laguntzen dutenik. Egia esan, eskala horrek emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko aldaketa potentzial handiena duten programak, edo emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun handienak izan ditzaketenak identifikatzeko balio du soilik, eta, beraz, azterketa, plangintza eta jarraipen handiagoa behar dute.

Horregatik, aurrekontu sail esanguratsu edo are handiago bat programa horietara bideratzeak ez du ziurtatzen garatzen dituzten politika publikoek genero eragin positiboa izango dutenik. Eragin hori politika horietatik emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburu eta ekintza espezifikoak egitearen esku egongo da. Izan ere, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko berariazko plangintzarik gabe, gerta liteke horietako batzuek gehiago sakontzea oraindik genero desberdintasunak.



Bestalde, txosten betearazleak diru sarreraren garrantzia ere adierazten du aurrekontu orokorren esparruan. Izan ere, askotan gastu politikan jartzen du arreta, eta ez diru sarreraren politikan, politika hori aurrekontu publikoen diruaren beste aldea besterik ez baita. Horregatik, interesgarriak eta adierazgarriak dira planteatutako aurrekontuak emakumeengan eta gizonengan duen eragin desberdinari buruz ematen diren datu batzuk, nahiz eta horietan oinarrituta ez den egiten dagokion genero azterketa eta ebaluazioa.

Hori da, adibidez, gastu fiskalen kasua. Gastu horiek 2.011 milioi eurokoak dira, hau da, zerga sarrera teorikoen % 30,2. Beraz, kopuru hori oso garrantzitsua da, eta zuzenean eragin dezake baliabide ekonomikoak eskuratzean eta, ondorioz, desberdintasun ekonomikoak lantzean. Kopuru horren zatirik handiena Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokio (996 milioi euro), eta bigarrena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari (667 milioi euro).

Bi zerga pertsonal nagusiak (PFEZ eta Ondarea) kontuan hartuz gero, aurreikusitako gastu fiskal osotik, % 60,8 gizonezkoei dagokie eta % 39,2 emakumezkoei. PFEZaren kasuan, gizonen ehunekoa are eta handiagoa da (% 62,2), eta emakumeena % 37,8.

Ondorioz, emandako datuetatik ondoriozta daiteke gastu fiskalak askoz ere onura handiagoa ekarriko diela gizonei emakumeei baino. Hori bereziki deigarria da testuinguru honetan, proiektuaren organo sustatzaileak egindako txostenean jasotzen den bezala: errenten arteko aldea % 37,9 da gizonen alde, eta emakumeen ia erdia (% 46,7) 12.000 eurotik beherako diru sarreretan kontzentratzen da, gizonen % 25,4ren aldean.

Horrela, erraz ondoriozta liteke aurrekontu orokorren aurreproiektuaren alderdi zehatz horrek genero eragin negatiboa izango lukeela; beraz, egokia litzateke eragin hori neutralizatzeko berdintasunaren aldeko neurri zuzentzaileak planifikatzea.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, foru arauaren aurreproiektuak aurreikusitako genero eragina benetan ebaluatu ahal izateko, prozesua osatu beharko litzateke, horretarako ezarritako jarraibideen arabera.

Hala, programa bakoitzaren jardun eremuan emakumeei eta gizonei buruzko datuak sexuaren arabera bereizita lortzeaz gain, programa bakoitzaren esparruan abian jartzea aurreikusten diren neurri zehatzak ere bildu beharko lirateke, aurreikusitako genero inpaktua aztertu ahal izateko, emakumeen eta gizonen egoerari buruzko hasierako datuen arabera.



Programen araberako ebaluazio partzial hori egin ondoren, eta eragin negatiboa izango dutela aurreikusten den programen kasuan, berdintasunaren aldeko neurri zuzentzaile zehatzak identifikatu beharko lirateke programa bakoitzaren esparruan. Azken helburua izango litzateke aurrekontu programen azterketan abiapuntuko egoerari buruzko datuak sartzea, eta, hala badagokio, berdintasunaren arloan lortu beharreko helburuak, horiek lortzeko jarduerak eta 2021ean horretarako aurreikusitako aurrekontua.

Horrekin guztiarekin, eta programen ebaluazio partzialetatik abiatuta, aurreproiektu osoaren genero eraginaren aurretiazko ebaluazioa egin liteke.

Ondorioz, eta eraginaren aurretiazko ebaluazio txostenak berak adierazten duen bezala, egindako azterketa ez da nahikoa txosten honen xede den arauaren genero eragina ebaluatzeko; beraz, azterlana osatu egin beharko litzateke, ezarritako prozedurari jarraituz.

Testuinguru horretan, eta aurrekontu orokorren genero eraginaren aurretiazko ebaluazio prozesua jardunbide konplexu bat denez, guztiz egokia litzateke genero ikuspegia foru aurrekontuetan txertatzeko lan metodologiaren hobekuntzan aurrera egiteko ekintza espezifiko bat abian jartzea, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Planean* jasotakoaren arabera, eta Gipuzkoako 2022rako aurrekontu orokorren arauaren genero eraginaren aurretiazko ebaluazioa hobetu beharko luke.

Azkenik, **hizkuntzaren erabilera ez sexistari dagokionez**, testuaren gaztelaniazko bertsioan, ikusten da ahalegin bat egin dela hizkuntza inklusiboa erabiltzeko.

Donostian, 2021eko urtarrilaren 19an

Ana Agirre Sáez de Eguilaz

Berdintasun Zerbitzuko burua

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa